

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

GIZA BALIABIDEEN SAILA

Lanpostuen zerrenda aldatzea Vitoria-Gasteizko Udaleko zenbait sailetan

Vitoria-Gasteizko Udaleko hainbat sailtako lanpostuen zerrenda aldatzea onetsi zuen Tokiko Gobernu Batzarrak 2021eko otsailaren 5ean egindako bilkuran.

Lanpostuen zerrenda tresna tekniko bat da, zeinen bitartez Vitoria-Gasteizko Udalak bere barne egiturak arrazionalizatu eta antolatzen baititu, sailen egungo premien arabera behar diren langileak zehazten —lanpostuan jarduteko bete beharreko baldintzak finkatuz, baita lanpostuen beren ezaugarriak ere—, eta horietako bakoitza sailkatzen. Era berean, zerrendaren beraren izaera publikoa ezartzen du.

Lanpostu bakoitzeko, honako hauek adierazten dira lanpostuen zerrendan: izena, zein sailari atxikitzen zaion, dedikazio-erregimena, bertan jarduteko bete beharreko baldintzak, taldea, eskala eta azpieskala, destino-osagarriaren maila, hornitzeko sistema eta berariazko osagarria.

Zentzu horretan, Enplegatutako Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bateratua onetsi zeneko urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 74. artikuluan honela dago jasota: "Administrazio publikoek lanpostuen zerrenden bitartez edo antzeko antolaketa-tresnak erabilita egituratuko dute beren antolamendua. Zerrenda horietan, gutxienez, honako hauek jaso behar dira: lanpostuen izena, lanbide-sailkapeneko taldeak, hala dagokionean, atxikita dituzten kidegoak edo eskalak, lanpostuak betetzeko sistemak eta ordainsari osagarriak. Erabilitako tresna horiek publikoak izango dira."

Uztailaren 6ko Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legearen 18.1 artikulua jasotzen duenez, berriz, "lanpostu-zerrenden bitartez sortu, aldatu edo deuseztatuko dira lanpostuak"

Era berean, administrazio publikoak, bere burua antolatzeko duten eskumena dela eta, zerbitzuak egokien deritzon moduan antola ditzake, eraginkorragoak izan daitezten, Konstituzioaren 103.1 artikuluan emandako aginduaren ildotik, eta bere interesak betetzeko antolaera egokienak aukeratu.

Hortaz, efikazia hori lortze aldera, eta kontuan izanik zenbait lanpostutan egokitzapenak egiteko premia, Antolakuntzaren Kudeaketaren Zerbitzuak txosten arrazoitua egin du, beharrezkotzat jotzen duenari lanpostuak oraingo jarduera-eremuari eta zereginei egokitzea, erakundeak eskatzen duenari hobeto erantzutearren. Orobat proposatzen du, Gizarte Politiken, Adinekoen eta Haurren Sailean, bere zerbitzuak osatzen dituzten atalak batzea, zerbitzu bakoitzaren barruko mugikortasuna errazte aldera; hartara, atal bakarra izango da zerbitzu bakoitzean.

Proposamen honetan jasotzen diren aldakuntzak indarrean dagoen araudian xedatutakoaren arabera tramitatu dira.

Enplegatutako Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bateratua onetsi zeneko urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 37.2 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz, negoziatio-bilerak egin dira udal honetako langileen batzordearekin, 2021eko urtarrilaren 15ean eta 25ean.

Era berean, Giza Baliabideen Saileko Administrazio eta Ekonomia Kudeaketaren Zerbitzuko arduradunaren eta udal kontu-hartzailetzaren organoaren titularraren aldeko txostenak jaso dira.

Beraz, aurreko paragrafoetan adierazitakoa kontuan izanik, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 127. artikulua —abenduaren 16ko 57/2003 Legeak aldatua— aitortzen dizkion eskumenez baliatuz, eta 2019ko ekainaren 21eko erabakiaren bitartez haren esku utzitako aginpidea betez, Giza Baliabideen Arloko zinegotzi ordezkariak erabaki proposamen hau aurkezten dio Tokiko Gobernu Batzarrari:

Erabaki-proposamena

Lehena. Udaleko hainbat sailtako lanpostu-zerrendaren aldaketa onestea, eranskinean adierazten denaren arabera.

Bigarrena. Onesten denetik izango ditu ondorioak aldaketak.

Hirugarrena. Giza Baliabideen Sailari agintzea behar diren tramiteak egin ditzala lanpostuen zerrenda aldatzeko.

Laugarrena. Lanpostuen zerrenda aldatzeko erabaki hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko otsailaren 5ean

Giza Baliabideen zinegotzi ordezkaria
IÑAKI GURTUBAI ARTETXE

Eranskina

A/ Lanpostu zerrendaren aldaketa

1. Lanpostuaren izena aldatzea, gainerako ezaugarriak mantenduz.

02. Lurraldea eta Klimaren aldeko Ekintza.

Ingurumen Plangintza eta Kudeaketa Zerbitzuko Ingurumen Plangintzaren Atalari (022202.123) atxikitako Plangintza Zerbitzuko buruaren lanpostuaren (ID 7839) izena aldatzea. Hornikuntza-sistema: lehiaketa; taldea: A1; titulazioa: 604 —Kimikan lizentziatua— eta 612 —goi-mailako Industria-ingeniaritza—; eskala: administrazio berezia; azpi-eskala: teknikoa; mota: goi-mailako teknikaria (2110A); hizkuntza-eskakizuna: 3.a, derrigortasun-datarik gabe; destino-osagarria: 28; berariazko osagarria: 20; dedikazioa: ehuneko 115; IT txartela: 01.

Aurrerantzean honela izango da:

Iraunkortasun, Klima eta Energia burua (LAKO 123), Iraunkortasun, Klima eta Energia Zerbitzuari atxikia (022301.123).

23. Hezkuntza eta Kultura.

1. Hezkuntza Zerbitzuko Hezkuntza-ekintzaren Atalari (231902.1308) atxikitako Programen eta Hezkuntza Koordinazioaren arduradunaren lanpostuaren (ID 9262) izena aldatzea. Hornikuntza-sistema: lehiaketa; taldea: A1/A2; titulazioa: 600 —goi-mailako unibertsitate-titulua edo baliokidea— eta 500 —erdi-mailako unibertsitate-titulua edo baliokidea—; eskala: administrazio berezia; azpieskala: teknikoa; mota: goi-mailako teknikaria (2110A) eta erdi-mailako teknikaria (2120B); hizkuntza-eskakizuna: 3.a, derrigortasun-data: 2020/02/28; destino-osagarria: 23; berariazko osagarria: 92 (A1) - 91 (A2); dedikazioa: ehuneko 100; IT txartela: 05.

Aurrerantzean honela izango da:

Hezkuntza Ekintzen Ataleko arduraduna.

2. Administrazio Zerbitzuko Administrazio eta Kudeaketa Atalari (231101.311) atxikitako Kulturako Administrazio buruaren lanpostuaren (ID 1216) izena aldatzea. Hornikuntza-sistema: lehiaketa; taldea: A1; titulazioa: 601 —Ekonomi eta Enpresan lizentziatua edo baliokidea— eta 640 —Zuzenbideko lizentziatua edo baliokidea—; eskala: administrazio berezia; azpi-eskala: teknikoa (1100A) eta administrazio berezia (2110A); hizkuntza-eskakizuna: 3.a, derrigortasun-data: 1992/06/30; destino-osagarria: 26; berariazko osagarria: 35; dedikazioa: ehuneko 100; IT txartela: 02.

Aurrerantzean honela izango da:

Hezkuntza eta Kulturako Administrazio burua.

2. Lanpostuen osagarri eta baldintzak aldatu edo lanpostua eraldatzea.

02. Lurraldea eta Klimaren aldeko Ekintza.

Zuzendaritza Nagusiaren Zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiaren Atalari (021001.130) atxikitako Hirigintza Kudeaketako buruaren lanpostuaren (ID 7903) izena aldatzea. Hornikuntza-sistema: lehiaketa; taldea: A1; titulazioa: 600 —goi-mailako unibertsitate-titulua edo baliokidea—; eskala: administrazio berezia; azpi-eskala: teknikoa; mota: goi-mailako teknikaria (2110A) eta azpi-eskala: zerbitzu bereziak, mota: zeregin bereziak (2230A); hizkuntza-eskakizuna: 3.a, derrigortasun-datarik gabe; destino-osagarria: 28; berariazko osagarria: 20; dedikazioa: ehuneko 115; IT txartela: 02.

Aurrerantzean honela izango da:

Ingurumen Kudeaketaren Zerbitzuari (022201.130) atxikitako Ingurumen Kudeaketako burua (LAKO 130). Hornikuntza-sistema: lehiaketa; taldea: A1; titulazioa: 600 —goi-mailako unibertsitate-titulua edo baliokidea—; eskala: administrazio berezia; azpi-eskala: teknikoa; mota: goi-mailako teknikaria (2110A) eta azpi-eskala: zerbitzu bereziak; mota: zeregin bereziak (2230A); hizkuntza-eskakizuna: 3.a, derrigortasun-datarik gabe; destino-osagarria: 28; berariazko osagarria: 20; dedikazioa: ehuneko 115; IT txartela: 01.

04. Ogasuna.

Idazkaritza Teknikoaren Administrazio Atalari (041801.401) atxikitako Ogasuneko Administrazio Ataleko buruaren lanpostua (ID 716 eta 717) aldatzea. Hornikuntza-sistema: lehiaketa; taldea: A2/C1; titulazioa: 500 —erdi-mailako unibertsitate-titulua edo baliokidea— eta 300 —goi-mailako batxilerra, LH II, hirugarren mailako modulu profesionala edo baliokidea—; eskala: administrazio orokorra; azpi-eskala: kudeaketa (1110B) eta administrazioa (1200C); hizkuntza-eskakizuna: 3.a, derrigortasun-data: ID 716, 2013/12/20 eta ID 717, 1999/2/1; destino-osagarria: 21; berariazko osagarria: 135; dedikazioa: ehuneko 100; IT txartela: 02.

Aurrerantzean honela izango da:

Idazkaritza Teknikoaren Zerbitzuko Administrazio Atalari (041801.401) atxikitako Zerga Kudeaketaren arduraduna (ID 716 eta 717). Hornikuntza-sistema: lehiaketa; taldea: A2; titulazioa: 500 —erdi-mailako unibertsitate-titulua edo baliokidea—; eskala: administrazio orokorra; azpi-eskala: kudeaketa (1110B); hizkuntza-eskakizuna: 3.a, derrigortasun-data: ID 716, 2013/12/20 eta ID 717, 1999/2/1; destino-osagarria: 23; berariazko osagarria: 90; dedikazioa: ehuneko 100; IT txartela: 02.

09. Giza baliabideak.

1. Antolakuntzaren Kudeaketaren Zerbitzuari (091501.118) atxikitako Antolakuntzaren Kudeaketaren buruaren lanpostua (ID 1444) aldatzea. Hornikuntza-sistema: lehiaketa; taldea: A1; titulazioa: 600 —goi-mailako unibertsitate-titulua edo baliokidea—; eskala: administrazio berezia; azpi-eskala: teknikoa; mota: goi-mailako teknikaria (2110A); hizkuntza-eskakizuna: 3.a, derrigortasun-datarik gabe; destino-osagarria: 28; berariazko osagarria: 25; dedikazioa: ehuneko 115; IT txartela: 01.

Aurrerantzean honela izango da:

Antolakuntzaren Kudeaketaren Zerbitzuari (091501.118) atxikitako Antolakuntzaren Kudeaketaren burua (ID 1444). Hornikuntza-sistema: lehiaketa; taldea: A1; titulazioa: 600 —goi-mailako unibertsitate-titulua edo baliokidea—; eskala: administrazio berezia; azpi-eskala: teknikoa; mota: goi-mailako teknikaria (2110A); hizkuntza-eskakizuna: 3.a, derrigortasun-datarik gabe; destino-osagarria: 28; berariazko osagarria: 20; dedikazioa: ehuneko 115; IT txartela: 01.

2. Antolakuntzaren Kudeaketaren Zerbitzuari (091501.814) atxikitako Diruzaintzako buruaren lanpostua (ID 7905) aldatzea. Hornikuntza-sistema: lehiaketa; taldea: A1; titulazioa: 601 —Ekonomia eta Enpresa Zientzietako lizentziatua—; eskala: administrazio berezia; azpi-eskala: teknikoa; mota: goi-mailako teknikaria (2110A); hizkuntza-eskakizuna: 3.a, derrigortasun-datarik gabe; destino-osagarria: 25; berariazko osagarria: 50; dedikazioa: ehuneko 100; IT txartela: 05.

Aurrerantzean honela izango da:

Herritarrentzako Arretaren eta Gardentasunaren Zerbitzuko Herritarrentzako Arretaren Atalari (182501.814) atxikitako Herritarren Arretako burua. Hornikuntza-sistema: lehiaketa; taldea: A1; titulazioa: 600 —goi-mailako unibertsitate-titulua edo baliokidea—; eskala: administrazio berezia, azpi-eskala teknikoa, mota: goi-mailako teknikaria (2110A) eta administrazio orokorra, azpi-eskala teknikoa (1100A); hizkuntza-eskakizuna: 3.a, derrigortasun-data: 2021/02/05; destino-osagarria: 26; berariazko osagarria: 35; dedikazioa: ehuneko 100; IT txartela: 01.

15. Mugikortasuna eta Espazio Publikoa.

Espazio Publikoaren eta Natur Ingurunearen Zerbitzuko Hiriko Mantentze Atalari (152002.1825) atxikitako lanbide-laguntzailearen lanpostua (ID 9102) aldatzea. Hornikuntza-sistema: lehiaketa; taldea: E; titulazioa: 100 —eskola-graduatu edo baliokidea eta B gida-baimena— eskala: administrazio berezia; azpi-eskala: zerbitzu bereziak —eskala bereziari atxikitako lanpostuen titularrek bete dezakete (2230E, 2243E, 2244E, 2245E)—; hizkuntza-eskakizuna: 1.a, derrigortasun-datarik gabe; destino-osagarria: 11; berariazko osagarria: 250; dedikazioa: ehuneko 100.

Aurrerantzean honela izango da:

Antolakuntzaren Kudeaketaren Zerbitzuko Zerbitzuen Atal Osagarriari (091502.1833) atxikitako zerbitzu-laguntzailea (ID 9102). Hornikuntza-sistema: lehiaketa; taldea: E; titulazioa: 100 —eskola-graduatu edo baliokidea— eskala: administrazio berezia; azpi-eskala: zerbitzu bereziak —eskala bereziari atxikitako lanpostuen titularrek bete dezakete (2230E, 2243E, 2244E, 2245E)—; hizkuntza-eskakizuna: 1.a, derrigortasun-datarik gabe; destino-osagarria: 11; berariazko osagarria: 250; dedikazioa: ehuneko 100.

16. Udal Administrazioa eta Eraldaketa Digitala.

Garbiketa Zerbitzuko Garbiketa Orokorren Atalari (163001.1906) atxikitako Garbiketa 2 lanpostu (ID 935) aldatzea. Hornikuntza-sistema: lehiaketa; taldea: E; titulazioa: 100 —eskola-graduatu edo baliokidea— eskala: administrazio berezia; azpi-eskala: zerbitzu bereziak —eskala bereziari atxikitako lanpostuen titularrek bete dezakete (2230E, 2243E, 2244E, 2245E)—; hizkuntza-eskakizuna: 1.a, derrigortasun-datarik gabe; destino-osagarria: 11; berariazko osagarria: 250; dedikazioa: ehuneko 100.

Aurrerantzean honela izango da:

Antolakuntzaren Kudeaketaren Zerbitzuko Zerbitzuen Atal Osagarriari (091502.1833) atxikitako zerbitzu-laguntzailea (ID 935). Hornikuntza-sistema: lehiaketa; taldea: E; titulazioa: 100 — eskola-graduatua edo baliokidea — eskala: administrazio berezia; azpi-eskala: zerbitzu bereziak — eskala bereziari atxikitako lanpostuen titularrek bete dezakete (2230E, 2243E, 2244E, 2245E) —; hizkuntza-eskakizuna: 1.a, derrigortasun-datarik gabe; destino-osagarria: 11; berariazko osagarria: 250; dedikazioa: ehuneko 100.

23. Hezkuntza eta Kultura.

Kultura Zerbitzuko Antzoki Sarearen Atalari (231220.1500) atxikitako Arte eszenikoetako teknikari espezialistaren lanpostua (ID 1246, 1247, 1248, 1249, 7795, 9013) aldatzea. Hornikuntza-sistema: lehiaketa; taldea: C1; titulazioa: Z300 — Batxilergoko, Lanbide Heziketako teknikaria edo titulazio baliokidea; instalatzaile elektrikoaren txartela; 1.000 orduko prestakuntza edo esperientzia arte eszenikoetan — eskala: administrazio berezia; azpi-eskala: tekniko, mota: tekniko laguntzailea (2130C), eta azpi-eskala: zerbitzu bereziak, mota; su-itzaltze zerbitzua (2220C), eginkizun bereziak (2230C), eta lanbide-langileak (2241C); hizkuntza-eskakizuna: 1.a, derrigortasun-datarik gabe; destino-osagarria: 18; berariazko osagarria: 175; dedikazioa: ehuneko 100; IT txartela: 05.

Aurrerantzean honela izango da:

Kultura Zerbitzuko Antzoki Sarearen Atalari (231220.1500) atxikitako Arte eszenikoetako teknikari espezialista (ID 1246, 1247, 1248, 1249, 7795, 9013) aldatzea. Hornikuntza-sistema: lehiaketa; taldea: C1; titulazioa: Z300 — Batxilergoko, Lanbide Heziketako teknikaria edo titulazio baliokidea; instalatzaile elektrikoaren txartela; 1.000 orduko prestakuntza edo esperientzia arte eszenikoetan; B1 gidabaimena — eskala: administrazio berezia; azpi-eskala: tekniko, mota: tekniko laguntzailea (2130C), eta azpi-eskala: zerbitzu bereziak, mota; su-itzaltze zerbitzua (2220C), eginkizun bereziak (2230C), eta lanbide-langileak (2241C); hizkuntza-eskakizuna: 1.a, derrigortasun-datarik gabe; destino-osagarria: 18; berariazko osagarria: 175; dedikazioa: ehuneko 100; IT txartela: 05.

24. Kirola eta Osasuna.

Osasun Publikoaren Zerbitzuko Osasun Sustapenaren Atalari (243002.207) atxikitako Osasun Sustapenaren buruaren lanpostua (ID 1329) aldatzea. Hornikuntza-sistema: lehiaketa; taldea: A1; titulazioa: 606 — Medikuntzan lizentziatua —, 605 — Farmazian lizentziatua —, 607 — Psikologian lizentziatua —, 609 — Albaitaritzan lizentziatua —, 604 — Kimikan lizentziatua —, 636 — Biokimika eta Biologia Molekularrean gradua —, 659 — Elikagaien Zientzian eta Teknologian gradua —, 660 — Biologia lizentziatura edo gradua —, 661 — Biologia Molekularrean lizentziatua edo gradua —; eskala: administrazio berezia; azpi-eskala: tekniko; mota: goi-mailako teknikaria (2110A); hizkuntza-eskakizuna: 3.a, derrigortasun-datarik gabe; destino-osagarria: 26; berariazko osagarria: 35; dedikazioa: ehuneko 100; IT txartela: 01.

Aurrerantzean honela izango da:

Osasun Publikoaren Zerbitzuko Osasun Sustapenaren Atalari (243002.207) atxikitako Osasun Sustapenaren burua (ID 1329). Hornikuntza-sistema: lehiaketa; taldea: A1; titulazioa: 606 — Medikuntzan lizentziatua —, 605 — Farmazian lizentziatua —, 607 — Psikologian lizentziatua —, 609 — Albaitaritzan lizentziatua —, 604 — Kimikan lizentziatua —, 636 — Biokimika eta Biologia Molekularrean gradua —, 659 — Elikagaien Zientzian eta Teknologian gradua —, 660 — Biologia lizentziatura edo gradua —, 661 — Biologia Molekularrean lizentziatua edo gradua —; eskala: administrazio berezia; azpi-eskala: tekniko; mota: goi-mailako teknikaria (2110A); hizkuntza-eskakizuna: 3.a, derrigortasun-datarik gabe; destino-osagarria: 26; berariazko osagarria: 35; dedikazioa: ehuneko 100; IT txartela: 01.

B/ Administrazio-atalak batzea

11. Gizarte Politikak, Adinekoak eta Haurrak.

1. 111501 Gizarte Inklusioa eta 111502 Udalaren Harrera Baliabideak atalak batzea. Ondoriozko atala: 111501 Gizarte Inklusioa.

2. 112001 Sustapena, Prebentzioa eta Partaidetza, 112004 Familiari Laguntzea eta Babestea eta 112006 Balorazioa batzea. Ondoriozko atala: 112001 Haurtzaro eta Senitartea.

3. 113310 Adinekoak, 113320 Ostatu eta Eguneko Arreta Zerbitzuak, 11340 Zerbitzu eta Programa Komunitarioak batzea. Ondoriozko atala: 113310 Adinekoak.

4. 114501 Komunitate Jarduera eta 114502 Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak batzea. Ondoriozko atala: 114501 Komunitate Jarduera.

Antolakuntza-aldaketa horren ondorioz, jatorrizko atalei atxikitako dotazio guztiak ondoriozko atalari atxikita geratuko dira, atalak batu ondoren.